

Prensa Oharra

Ahotsak euskaraz grabatzeko maratoian parte hartzera animatu nahi ditu Udalak herritarrak

- **Abenduaren 2an eta 3an, ahotsak grabatzeko aukera izango da Bulebarrean jarriko den karpan**
- **Hiriko 50tik gora elkartek, entitatek eta enpresak hartuko dute parte ekimenean**
- ***Jar dezagun teknologia euskaldunon alde* lelopean, telefonoak eta nabigatzaileak euskaraz konfiguratzeko informazioa eta laguntza ere eskainiko da**

Donostiako Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak babesten duten www.gaitu.eus ekimenarekin, eta ahotsak grabatzeko maratoia egingo du Bulebarrean jarriko duen karpan, datorren larunbatean eta igandean, Euskararen Eguna dela-eta.

Abenduaren 2an, 12:00etatik 20:00etara izango da karpa Bulebarrean eta abenduaren 3an, berriz, 11:00etatik 19:00etara. Helburua da karpara ahalik eta donostiar gehien gerturatzea eta ahots asko eta askotarikoak grabatzea, adin, genero, azentu eta hizkera desberdinetakoak. Hori dela-eta, ahotsen grabazio masiboan parte hartzera gonbidatu ditu Udalak bai hiriko elkarte, entitate eta enpresetako ordezkariak bai herritarrak.

Eguerdiko 12: 00etan Eneko Goia alkateak, Udaleko zenbait zinegotzik eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak maratoiari hasiera emango diote, karpan jarriko diren kabinetan bere ahotsa grabatuz.

Era berean, 50etik gora eragilek eta elkartek erantzun diote jada Bulebarreko karpara gerturatzeko Udalaren gonbidapenari. Honakoek, hain zuzen ere: Aieteko euskara batzordea, Altza institutua, Antiguoko kirol elkarte, Arcco-Amara merkataritza-gunea, Askatuak saskibaloia taldea, Axuri Beltza kultur elkarte, Bagera euskara elkarte, Barrexerka Taldea, Beta ikerketa-institutua, Donostia Arraun Lagunak, Donostiako Tenis Elkarte Erreal, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola, Elizaren lanbide heziketa, Elkar Fundazioa, Emun, Erein Argitaletxea, Erribertxo kultur elkarte, Eskola Dantza Taldea, Etxepare Euskal Institutua, Euskadiko Filmategia, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritza, Fortuna Kirol Elkarte, Gipuzkoako Bertsozale Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hitz Hizkuntza Teknologiko Zentroa (EHU), Iametzta Komunikazioa eta Teknologia, Irutxuloko Hitza, Jesuitak Donostia San Ignacio ikastetxea, Kantu Jira, Kirolean AholkuLab, Kofradia-Itsas Etxea, Kutxabank, Librezale taldea, Mundaitz ikastetxea, Musikene, Noticias de

Prensa Oharra

Gipuzkoa, OnDoaN Topagunea, San Martin Merkatua, San Sebastián Shops, Ur Kirolak, Teila Fabrika, TheNiu eta Urrats euskaltegia.

Artean ere izena eman gabe dauden hiriko gainerako eragileek ere ahotsen grabazio masiboan parte hartzea nahiko luke Udalak. Eta banakako herritarrei ere karpara gerturatzeko deia egin die, helburua baita ahalik eta ahots gehienak grabatzea.

Karpan bi kabina izango dira, ordenagailu banarekin, eta bertan, www.gaitu.eus gunean grabatu ahal izango dituzte gerturazten direnek euren ahotsak, Udalak horretarako jarriko dituen pertsonen laguntza baliatuta.

www.gaitu.eus webgunean sartzten direnei bi lan proposatzen zaizkie: batetik, idatzita dagoen esaldi bat irakurtzea/grabatzea, eta bestetik, beste hiztun batzuek grabatutako esaldiak balioztatzea. Bata zein bestea nahi beste aldiz egin dezake norberak.

Gaitu.eus proiektua, jauzi handia euskararentzat

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, euskara ahots-teknologia berrietan garatu ahal izateko eta teknologia horiek euskara ulertu eta hitz egin dezaten bultzatu dute ekimen hau.

Etorkizun hurbilean, pixkanaka, teklatuaren ordean, ahotsa teknologia berriekin komunikatzeko bide nagusia izatea aurreikusten da, eta horrek milioika hitz, esaldi eta ahots desberdin eskatzen ditu edozein hizkuntzatan eta, jakina, baita euskaraz ere.

Helburu horri begira, Common Voice proiektuak, software librearen alde lan egiten duen munduko komunitateak bultzatutakoak, milioika ahots 129 hizkuntzatan grabatzeko erronka du esku artean. Planteamendu libre eta ireki hori ezinbestekoa da hizkuntza txiek mundu teknologikoan aurrera egin dezaten, eta hemen euskarak aukera bat du, interes komertzialak dituzten enpresa handiek emango ez diotena.

Mugikorra eta nabigatzailea euskaraz konfiguratzeko

Ahotsak grabatzeaz gain, Bulebarreko karpara hurbiltzen diren pertsonak telefono mugikorrek eta ordenagailuko nabigatzaileak (Firefox, Chrome, etab.) euskaraz konfiguratu ahal izango dituzte.

Jon Insausti Udaleko Kultura, Euskara eta Turismo zinegotziak adierazi duenez, *"mugikorra eta nabigatzaileak euskaraz konfiguratzeko baditugu, euskaraz bizitzeko aukera gehiago izango ditugu eremu digitalean, eta gailuek euskarazko eduki gehiago eskainiko dizkigute. Zenbat eta gailu gehiago konfiguratu euskaraz, enpresa teknologiko handiek gure hizkuntza ere erabiltzeko premia handiagoa ikusiko dute, eta, beraz, Google, Microsoft, Amazon edo Apple bezalako enpresei gehiago interesatuko zaie euskara kontuan hartzea beren produktuak eta zerbitzuak eskaintzerakoan"*.

Prentsa Oharra

Karpara bertarutzen direnek telefonoa eta nabigatzailea euskaraz konfiguratzekeo laguntza jasoko dute.